

Euskal eskoletan bigarren hezkuntzako ikasleen komunikazio hizkuntza-antsietate eta komunikatzeko-borondate prozesuetan generoa aztertzen

Tesiaren egilea: Uxue Diez-Guiral

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Hezkuntza Zientzien Saila

Doktorego-programa: Hezkuntza: Eskola, Hizkuntza eta Gizartea Doktorego programa

Jakintza-arloa: Hezkuntza Zientziak, Soziolinguistika

Tesi-zuzendaria: Jon Altuna Urdin eta Alaitz Santos Berrondo

Tesiaren laburpena:

Ikerketaren xede nagusia da euskal testuinguru eleaniztun konplexuan Komunikazio Hizkuntza-antsietatearen (KHA) eta Komunikazio-borondatearen (KB) arteko harremana aztertzea eta faktore horiek generoarekin duten lotura ikertu eta horretan sakontzea. Zehazki, nesken, mutilen eta pertsona ez-bitarren artean izan daitezkeen KHA eta KB aldaerak aztertu dira eta ikasleek euren kideen bi prozesu horien gainean dituzten iritziak baloratu dira. Aldi berean, ikasleen errealitateetan maila sozial ezberdina duten hizkuntzek —hala nola euskarak, gaztelaniak eta ingelesak— Komunikazio Hizkuntza-antsietatearen, Komunikazio-borondatearen eta generoarekin arteko elkarrekintzan zer paper jokatzeko duten esploratu da. Azkenik, bi Faktore Afektibo horien, generoarekin eta bestelako aldagai soziolinguistiko nabarmenen arteko harremanak aztertu dira.

Helburu horiek lortzeko izaera esploratzailea duen ikerketa mistoa diseinatu da eta ikerketak objektu izan dituen gaien lehen argazki bat egin da. Ikerketa misto honek metodologia eta instrumentu kuantitatiboak zein kualitatiboak baliatu ditu emaitza eta ondorioak sortu eta lortzeko. Atal kuantitatiboari dagokionez, hiru atalez osatutako galdetegia eratu da. Datu kuantitatiboaren analisiak egiteko analisi deskriptibo eta inferentzialak egin dira SPSS 28 softwarearen bidez. Atal kualitatiboari dagokionez, ikasleei zein hizkuntza-irakasleei zuzenduriko elkarrizketa erdi egituratuak erabili dira datu kualitatiboak jasotzeko. Datu kualitatiboaren analisisetarako datuen analisi tematikoaren teknika erabili da eta Atlas.ti tresna baliatu da. Parte-hartzaileei dagokienez, ikerketa honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (3-4 mailak) eta Batxilergoko 4 ikastetxetako 465 ikasleek hartu dute parte, bai eta ikasle horien hizkuntza-irakasleek ere.

Ikerketa honetatik eratorritako datuen analisisetatik hainbat emaitza eta ondorio nabarmen atera dira. KHAn dagokionez, generoarekin eta hizkuntzaren arabera ezberdinak diren patroiak azaleratu dira. KHAn agertu den genero-ezberdintasun hori ikasleek egunerokotasunean bizitzen dituzten esperientzietan islatu da, elkarrizketetan ikusi moduan. Bigarrenik, ikasleen KB mailak ikertzean generoak

zuzeneko eragin esanguratsurik ez duela ikusi da. Hala eta guztiz ere, KB patroia ezberdinak aurkitu dira, generoaren eta hizkuntzaren arabera aldatzen direnak. KHA, KB eta generoaren arteko elkarrekintza neurtzean, ikusi da hizkuntzaren arabera aldatzen dela, eta bestelako aldagai soziolinguistiko nabarmenek ere eragin ezberdinak dituztela harreman horretan.

Ikerketa honen emaitzek erakusten dute KHA eta KB fenomeno konplexuak direla eta generoak eragina duela bi faktoreetan. Eragin hori hainbat elementuren mende dago eta horrek konplexuak diren eta maila anitzetan lan egiten duten sinergiak sortzen ditu. Emaita hauek ondorio pedagogiko eta teorikoak dituzte ezinbestean, eta horietan sakondu da ikerlerroan loratutako nazioarteko zein gertuko beste ikerketa batzuekin eztabaida sortuz. Emaita eta ondorioak ikuspegi transfeminista eta kuir/queerra barneratuz esploratzen eta azaltzen dira, ikerlerro honetarako era berritzailean, hain zuzen. Aldi berean, Faktore Afektiboen eremuan eta Hizkuntzen l(r)a kaskuntzaren alor zabalean generoa ikuspegi berritzaileetatik ikertzearen garrantzia azpimarratzen da doktorego-tesi honetan.

Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literatura garaikidean

Tesiaren egilea: Ainhoa Urzelai Vicente

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Doktorego-programa: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Doktoregoa

Jakintza-arloa: Literatura

Tesi-zuzendaria: Mari Jose Olaziregi Alustiza

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesi honen helburu nagusia da aztertzea nola egin den Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal Haur eta Gazte Literaturan (hemendik aurrera HGL), hau da, Guda Karlistak, Lehen Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, Frankismoa eta euskal gatazka zenbat eta nola landu den aztertzea.

Guztira 77 obrak osatu dute corpusa eta horien guztien analisi kritiko sakon eta sistematikoa eskaini dut. Corpusa aztertzeko, analisi-eredu bat sortu dut, zeina narratologiaren, Memoria Ikasketen eta Genero Ikasketen gurutzaketatik eratortzen den. Horrek ahalbidetu du aztertzea, besteak beste, gerra edo gatazkaren gainean erakusten diren alderdiak, biktima/biktinario dikotomiak eta haien arteko harremanak, narrazioetan transmititzen den ideologia, gizon eta emakumeen irudikapenak edo gerrekin lotutako genero-gatazkak. Aipatutako helburuarekin batera, lan honek euskarazko HGLri buruzko hurbilpen teoriko eta praktikoa garaikideen bilakaeraz jabetzea du xede, baita euskal literaturan eta HGLn oro har memoria historikoa nola landu den berariaz ikertu duten lanen azterketa egitea ere. Hirugarrenik, memoria historikoa eskolan lantzeko sortu diren proposamen didaktikoen diagnostikoa egitea du helburu, etorkizuneko ikerketak bideratze aldera.

Egindako azterketak erakutsi du euskal HGLk uste baino gehiago heldu diola gure iragan gatazkatsuen errepresentazioari, batez ere XXI. mendetik aurrera, helduen literaturan eta inguruko HGLko sistemetan baino beranduago bada ere. Estetika errealista batetik abiatuta, aztertutako liburuek gerrek eragiten duten sufrimenduaren testigantza helarazten diote irakurle gazteari; hau da, gerrarena eta haren eskutik doan heriotzarena. Horiek ez dira gai tabua HGLn, eta beraz, corpusak frogatzen du HGLk gai zailez hitz egiteko balio duela.

Tesi-lan honi katalogo batek ematen dio amaiera. Bertan, corpusaren parte diren 77 literatura-lanak biltzen dira, haien gaineko informazio teknikoa emateko eta liburu bakoitzak gerra edo gatazka armatuarekin lotutako zein alderdi zehatz aipatzen duen modu praktikoan adierazteko.